

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKATETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA							2017-2018			
ARLOA / GAIA	M A T E M A T I K A						DATA	2017-09-01			
ETAPA - MAILA	1 DBH		2 DBH		3 DBH		4 DBH	X	1 BATX.		2 BATX.

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
----------	--

- | | |
|--|---|
| <p>1. Funtzio esponenzialaren eta logaritmikoaren ezaugarriak deskribatu eta adierazpen moldeak eraldatu, berreketa eragiketarik abiatuta, eta funtzio horiekin eragiketarik egin.</p> <p>2. Funtzio esponenzial eta logaritmikoarekin erlazionatutako modelo edo eredu matematikoak baliatuz, hazkunde eta txikitze esponenzialarekin zerikusia duten fenomenoak argitzeko informazioa ateratu.</p> <p>3. Funtzio esponenziala eta logaritmikoa baliatuz ekonomiarekin lotutako problemak ebatzi.</p> <p>4. Zoriarekin erlazionatutako esperimentuak eta haietatik sortutako gertakariak identifikatu, haiekin eragiketa logikoak egin eta gertakari horiei probabilitateak esleitu, gertakari horien aukerak kuantifikatu.</p> <p>5. Zoriarekin erlazionatutako fenomenoak modelizatu hainbat teknika baliatuz eta, modelo horien baitan, esperimentu konposatuetatik eratorritako eta baldintzatutako gertakarien probabilitateak kalkulatu eta gertakari horien norainokoa balioetsi.</p> <p>6. Eguneroko bizitzako egoeretan planoko hainbat elementu duten presentziak ohartu, haien osagaiak eta ezaugarriak identifikatu eta elementu horiek aljebraikoki zein grafikoki adierazi.</p> | <p>7. Eguneroko bizitzako hainbat egoera ekuazio-sistemen, inekuazioen eta inekuazio-sistemen bidez modelizatu, grafikoki zein aljebraikoki, eta modelo horiek eraldatu eta interpretatu problema ebatzi eta soluzioa adierazi, adierazpenen molde anitzak baliatuz.</p> <p>8. Eragiketen propietateak eta identitate aljebraikoak baliatuz, bigarren mailatik gorako ekuazioak eta haiekin erlazionatutako problemak ebatzi.</p> <p>9. Aldagai bakarreko banaketa estatistikoak deskribatu eta konparatu, adierazpen grafikoak zein parametro estatistikoak baliatuz eta ikerketa estatistikoaren prozesua balioetsi.</p> <p>10. Bi aldagaiko banaketa estatistikoaren erlazioa neurtu eta balioetsi, eta, erlazio mailaren baitan, iragarpenak egin.</p> <p>11. Artearen eta diseinuaren elementuak ikuspegi geometriko batez ikuskatu eta aztertu eta Geometriak artearen adierazkortasunean eta diseinuen erabilgarritasunean egiten duen ekarpena balioetsi.</p> <p>12. Erroez eraturako adierazpenak eraldatu eta haiekin eragiketarik egin, erroen propietateak erabiliz.</p> <p>13. Zeharkako neurketak egitea eskatzen duten problemak ebatzi, arrazoi trigonometrikoak baliatuz.</p> <p>14. Aldagaien arteko erlazioak funtzioen eta ekuazioen bidez adierazi eta haiek baliatuz, problemak ebatzi.</p> |
|--|---|

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA
----------	--------------------------------

ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
14	Funtzio esponet. eta logaritmikoa	14	Inekuazioak eta inekuazio sistemak	15	Banaketa estatistikoak (normala, bidimentsionala, ...)
4	Ekonomia	4	Polinomioen faktORIZAZIOA	4	Erroen propietateak
12	Probabilitatea	12	Banaketa estatistikoak (dimentsio bakarrekoaren parametroak)	10	Trigonometria
				6	Aljebra

3	METODOLOGIA
----------	--------------------

Ebaluaketa bakoitzean unitate didaktiko bat lantzen dugu. Unitate bakoitza 3 fasetan banatzen delarik: Hasiera fasea, garapen fasea eta amaierako fasea. Hasiera fasean zer ikasiko dugun eta zertarako erabiltzen den tratatzen dugu, bizitza errealeko egoera bat planteatuz. Garapen fasean eduki-baliabideak eskuratzeko azalpen eta ariketak lantzen ditugu eta bukatzean hasieran planteaturiko egoerari aurre egiten diogu. Amaierako fasean antzeko egoera baten aurrean nola jokatu aztertuko dugu.

4	BAILABIDEAK
----------	--------------------

TESTU LIBURUA:	EDITORIALA:
MATEMATIKA 4 (Bigarren Hezkuntza)	ELKAR

5	EBALUAZIO SISTEMA
----------	--------------------------

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Unitate didaktiko bakoitzean eduki-baliabideak neurtzeko bi azterketa egingo ditugu.
 Unitatea bukatzean kompetentziak neurtzeko beste azterketa bat egingo dugu, egoera berri bati erantzuna eman beharko diotelarik bertan.
 Jarrerak %20ko eragina izango du ebaluazioaren azkenengo notan.

KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	EDUKI-BALIABIDEAK	% 50	KONPETENTZIAK	% 30	JARRERAK	% 20
---	--------------------------	-------------	----------------------	-------------	-----------------	-------------

6	BERRESKURAPEN SISTEMA
----------	------------------------------

Unitate didaktiko bakoitzean, suspenditutako eduki-baliabideak ebaluaketaren bukaeran errekeratu ahalko dira azterketa baten bidez (errekeraketa).
 Errekeraketa azterketa hori ere suspenditzekotan, ekainean, kurtsoan zehar gainditu gabeko unitate didaktikoen eduki-baliabideen errekeraketa egingo da (nahikotasuna).
 Nahikotasunean unitate didaktikoren bat suspenditzen bada, ez-ohiko deialdian berreskuratu ahalko da. Ez-ohiko deialdiko azterketa suspenditzen bada, kurtso horretan irakasgaia suspendituztat geldituko da.